

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4885

1700/2020 EBAZPENA, urriaren 26koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Maria Begoña Salazar Llano andrea Erizaintzako zuzendariorde (Pertsonen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa) izendatu den, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan.

1264/2020 abuztuaren 13koa Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlan Erizaintzako zuzendariorde (Pertsonen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta Maria Begoña Salazar Llano andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, Erizaintzako zuzendariorde (Pertsonen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa), Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Maria Begoña Salazar Llano andrea izendatzea Erizaintzako zuzendariorde (Pertsonen eta lan-inguru osasungarrien kudeaketa), Osakidetzako Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2020ko urriaren 26a.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak titular moduan kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, Erizaintzako Zuzendaritzari eta Langileen Zuzendaritzari.

2020ko azaroaren 16a, astelehena

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osa-kidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2020ko urriaren 26a.

Lanpostu hutsagatik, zuzendari gerentearen urtarrilaren 1eko 3/2015 Ebazpen bidez.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari medikoa,
EDURNE OMAETXEBARRIA LEGARRA.